

# *Formen matxinada edo nola itzuli ziurgabetasuna ez areagotze*

---

BAKARTXO ARRIZABALAGA



*Formen matxinada*

Jatorrizko izenburua: *La rebelión de las formas*

Egilea: J. Wagensberg

Itzultzaitzailea: Juan Garzia

Argitaratze urtea: 2007

Argitaletxea: ZIO bilduma, EHU

Helduentzat euskaraturikoa literaturaz ari garenean, ohartugabeki eleberriaz aritzera mugatu ohi gara, saiakera inork ez baitu literaturatzat benetan hartzen eta olerkia, aldiz, literaturegi delako edo, itzulpen saioetatik aienatua baitugu.

Saiakera literatura omen da, halere, eta saiakera baten itzulpena aztertzena ekarriz ausartu naiz, ausart jokatu duten hala idazleari nola itzultzaleari jarraia eginik, denok jakin bai baina bere osotasunean onartzen ez dugun hori plazaratzera; alabaina, aztergai liburu hau hautatuz, hala jatorrizko idazleak nola itzultzaleak eman duten erronkari erantzun beharra dut eskuartean, zeren jatorrizko testua literatura lan ez nolanahikoa badugu, are seinalagarriagoa baita, euskal letron egungo egoeran, itzultze lan ausart eta indartsu baten ondorioz sorturiko euskarazko irakurgaia. Halatan, bada, erronkaren handia kontuan harturik, jatorrizko testuaren idazleak egin ekarpen berritzailea aipatu ondoren, itzultzaleak eskainiriko lan eskerga eta are berritzaileagoaren gaineko ibilalditxoa egitera mugatuko naiz, han-hemenka agerikoen gertatu zaizkidan xehetasunak seinalatuz, gerora gogoeta sakonagoen sustatzaile izan daitekeelako esperantzan.

Horren egiteko, lehenik eta behin, jatorrizko testuaren ezaugarrien bila hasiko naiz, haien itzulpenean zenbateraino emanak diren ikuste –eta erakusten sainzate– aldera.

Jatorrizko testua gaztelaniaz idatzia da. Zientzia zabaltzeko liburua da, jendeari zientziaren berri emateko liburua. Idazlea zientzialaria da, irakasle eta ikertzaile, fisikako doktore eta atze-rakorik ez duten prozesuen teoriaren irakasle Bartzelonako Unibertsitatean, bai eta argitaratzai-le, hizlari, idazle eta museologo.

Zientziaren hainbat alorretan egin ditu ekarpenak: kazetaritzako saiakerak, liburuak eta ikerketa lanak termodinamika, matematika, biofisika, mikrobiologia, paleontologia, entomologia, museologia zientifiko, zientziaren filosofia eta abarreko alorretan.

*La rebelión de las formas, o cómo perseverar cuando la incertidumbre aprieta* 2004 urtean argitaratu zuen.

Itzulpenaz mintzatu aitzin, ikus dezagun, lehen aurreratu dudan bidetik joz, jatorrizko testua, literaturazko zein ezaugarri eta balio dituen, nolako testu den, horren ondoren, ordezkatu nahi duen euskarazkoarekin alderatu ahal dezagun.

Jatorrizko testuaren lehen argitarapena erabili dut, 2004koa, eta hemen emanen ditudan pasarteak haren antolaeraren arabera dira orrialdeetan kokaturik. Orrien zenbakia parentesi artean emana agertzen da, lehena gaztelaniazko testuari dagokio eta bigarren parentesia, berriz, letra etzanetan, euskarazko argitarapenari. Hala eman ditut, inork bi testuak erkatu nahi baditu, errazago gerta dakion.

### **Jatorrizko testuaren estiloa**

Gaztelaniazko testua izanagatik ere, jatorrizko testua zientzia zabaltzeko anglosaxoien idazteko maneratik gertuago da gaztelaniaz zientzia testuen zabalkunderako duten tradiziotik baino, hau da, testu estilistikoki ahal bezain garbi eta jendearen hizkera arruntetik gertuen izateaz gain, ahozko moduen eta lagunarteko hizkera arruntaren elementuz josia da eta idazlea bera agertzen da lehen pertsonan, objektibotasuna adierazi nahian baliatu ohi den era inpertsonala erabili ordez. Konnotazioa erabat baztertu beharrean, testua goxatzeko erabilia da.

Honako ezaugarri nagusiak aipatu nahiko nituzke:

#### Sintaxi soildua

Esaldi laburrak erabiltzen ditu eta aditza orainaldian; horrek irakurketa arintzen du:

Existen objetos y fenómenos imaginables, pero imposibles. Por ejemplo, un sol cúbico. Por ejemplo, un planeta que invierta espontáneamente el sentido de su rotación. Esto significa que la Constitución de la realidad no es un conjunto vacío de leyes. Y no sólo eso. (26. or.) (28. or.)

Gainera, esaldiak ahal beste argi eta arin mantentzeko, eta ondorengo esaldiaren kiko harremana ez urrentzeko, parentesiak erabiltzen ditu maiz, esaldi barneko zehaztapenak emateko:

*El carácter de la ley física* [5], un libro del genial Richard Feynman, será recordado por dos o tres metáforas luminosas (que son la delicia diaria de miles de profesores de física). Una de ellas consiste... (29. or.) (32. or.)

Esaldiak ahal bezain simple egin nahi horretan, aditza orainaldi errealean erabiltzen du hipotesi bat aurkezterakoan ere, hots, balizko egoera edo gertakaria azaltzen duenean ere. Horrekin batzuetan ulergarritasuna areagotu beharrean zaitzen du, ez baita argi agertzen zein mundu ari den aurkezten, paragrafo berean diren orainaldi ororen arteko harremana ez baita beti argi:

La leyes y principios que se traducen como una determinación perfecta son (sobre todo han sido) de enorme prestigio en física. De las infinitas trayectorias posibles sólo una ocurre en la realidad. Durante mucho tiempo ésta ha sido la situación soñada: leyes deterministas... (27. or.) (29. or.)

Es el sueño de todo científico, la predicción, la anticipación. La solución existe, es única y pretende obligar a la realidad a satisfacerla. Una ley expresada por una ecuación diferencial es una ley de obligación. Son ecuaciones diferenciales... (32. or.) (36. or.)

Horri gaineratzen zaio esaldien arteko lotura logikoa gutxi zehazten duela, parataxia erabiltzen duela maiz eta, hartara, irakurleari dagokio esaldi bakoitzaren lekua bilatu eta idazleak egin dituen jauzi logikoak asmatzea. Horrela esaldiaren barneko arrazoibidea errazten da, baina esaldien artekoa zaitzen. Irudi batetik bestera eramatzen gaitu eta irudi bakoitza ahal bezain argi eman nahirik, gainerako loturak arintzen ditu. Esaldi laburrak elkarren ondoan jarri eta errepikapenen eta anafora soilen bitartez ematen du ulertzera esaldien artean den lotura logikoa:

Existen objetos y fenómenos imaginables, pero imposibles. Por ejemplo, un sol cúbico. Por ejemplo, un planeta que invierta espontáneamente el sentido de su rotación. (26. or.) (28. or.)

Existen procesos imposibles que conservan la energía. Es el caso de un barco que funcione indefinidamente por el procedimiento de extraer calor del mar. El calor que obtiene el barco es exactamente el que pierde el océano. La energía se conserva (el mar se enfria de forma imperceptible), pero se trata de un objeto que jamás accederá a la realidad (un barco así nunca funcionará) porque está prohibido por el segundo principio de la termodinámica. Este se refiere a la entropía. En un sistema aislado, la entropía no puede disminuir. (38. or.) (43. or.)

### Galdetu/erantzun jokoa

Galdera-erantzunen jokoa erabiltzen du testua egituratzeko; horrela testua argiago eta jarrigarriago egiten du. Funtsezko elementua da joko hori liburu osoan zehar:

¿Cómo imaginar un conjunto llamado Constitución de la realidad?

Empecemos por imaginar un mundo sin ley. ¿Cómo sería la realidad si no existiera ni una sola ley de la naturaleza? Si la Constitución de la realidad fuese un conjunto vacío, todo lo lógicamente viable (sin contradicciones internas) sería igualmente verosímil. (26. or.) (28. or.)

...

¿*Es el azar un producto de nuestra ignorancia o un derecho intrínseco de la naturaleza?*

Dicho de otra manera: ¿es todo ley? O aún: ¿todo lo que ocurre en la realidad ocurre obedeciendo cierta ley, conocida o no, que obliga a tal ocurrencia? O también: ¿está todo lleno de obligaciones?... (29. or.) (31. or.)

¿Qué significa que una magnitud se conserva? Pues que podemos comparar el antes y el después de un suceso real y afirmar que tal magnitud es globalmente la misma. (34. or.) (38. or.)

Horrekin batera, beste baliabide bat agertzen zaigu etengabee; hau da, baieztapen borobilak egiten ditu, galderen erantzun gisa edo azalpenak emanez:

Cualquiera de las leyes de la naturaleza conocidas puede expresarse en términos de un número finito de prohibiciones. Con las leyes de obligación ¡no ocurre lo mismo!... Pero el talante científico trata siempre de evitar un concepto infinito, y una ley de obligación pasa conceptualmente por el infinito. (29. or.) (32. or.)

Cuando un fenómeno se nos antoja impuesto por una ley determinista, como el tiro parabólico de un artillero, es porque estamos ante un caso de rarísima simplicidad. (31. or.) (34. or.)

Magnitudes de la física como la masa (cantidad de materia) o la energía se conservan durante un proceso real. (34. or.) (38. or.)

La física suele expresar sus grandes leyes mediante ecuaciones diferenciales. Se trata de ecuaciones en las que... (32. or.) (36. or.)

Hartara, eskuliburu baten estiloa hartzen zaio liburuari, irakasle batek ezjakinei eskainiriko mintzoa. Irakurlea bere ezagutzan barrena eramatzen saiatzen ari da, bidea ahal beste erraztuz.

### Parafrasiak eta errepikapenak

Horregatik, urratsez urrats galderak egin eta erantzun eta irudiak emanez doalarik, esaldien ulermena areagotzeako parafrasiak erabiltzen ditu eta gauza bera manera desberdinetan errepikatzen du:

Es un dominio de incertidumbre, el margen de contingencia intrínseca a la que tiene derecho la naturaleza, la dosis de Azar con mayúscula, el territorio sin ley. (27. or.) (28. or.)

Dicho de otra manera: ¿es todo ley? O aun: ¿todo lo que ocurre en la realidad, ocurre obedeciendo cierta ley, conocida o no, que obliga a tal ocurrencia? O también: ¿está todo lleno de obligaciones? (29. or.) (31. or.)

### Dizplinartekotasun erabatekooa

Analogiaz jokatzen du etengabe eta horretarako, bere gogoetetan ezagutza alor anitz erabilten du, hala zientzia mailako nola bizitza arrunteko:

Algo muy similar ocurre con el concepto de ley en el código penal o en una normativa ética... (29. or.) (31. or.)

Ocurre lo mismo con un ciudadano respecto del comportamiento que regula el código penal. La ley... (38. or.) (43. or.)

Necesitamos dar nombre a esta idea. Llámese Constitución de la realidad. Es un homenaje a la Carta Magna del sistema jurídico de muchos países, un conjunto de leyes fundamentales... (26. or.) (27. or.)

Las reglas que regulan los movimientos de las piezas del ajedrez... (30. or.) (33. or.)

Como el tiro parabólico de un artillero,... (29. or.) (31. or.)

Ocurre en la naturaleza, en el ajedrez, en el Derecho penal, en la ética, en el tráfico... (35. or.) (40. or.)

Es el caso de un barco que funcione... (38. or.) (44. or.)

Imaginemos una situación muy familiar para nuestra intuición: un animal hambriento en busca de comida... (38. or.) (45. or.)

Podemos acceder a esta visión con otra buena metáfora, la que procede de la regulación del tráfico rodado El conjunto de las leyes que gobiernan el mundo equivale a la idea de un territorio enmarañado de caminos... (36. or.) (41. or.)

Tal es el paisaje de eso que hemos llamado la Constitución de la realidad, un sembrado de señales de prohibido el paso... (36. or.) (41. or.)

...pero se trata de un objeto que jamás accederá a la realidad (un barco así nunca funcionará) porque está prohibido por el segundo principio de la termodinámica. (38. or.) (44. or.)

Hemos revoloteado en torno a esta pregunta... y ya nos hemos posado sobre una de las respuestas... (40. or.) (46. or.)

Diziplinen artean ibiltze horretaz ohartzen dela adierazten du ere:

A primera vista estas preguntas parecen más propias de la metafísica que de la física, más pendientes de una ideología que de un proyecto de investigación. Y quizá sea así. Pero la idea de prohibición (más allá de la cual sólo existe la imposibilidad) sugiere, ahora lo creo, algo más. Por eso estoy a punto de dejar de escabullirme. (29. or.) (31. or.)

### Lehen pertsonaren erabilera

Eta adibide horrekin beste ezaugarri bat agertzen zaigu: idazlea bera agertu ere agertzen da. Liburuan zehar etengabe zuzentzen zaio irakurleari, bere burua agertuz. Gonbidatzen du irakurlea berarekin aritzera. Lehen aipatu dudan galderen erabilera zuzenean da horri lotua. Zientziaren gaineko gogoetetan erabili ohi den bailiabidea dugu hori, bai eta, halaberean, proposamenak pluralean egitea; hori ere erabiltzen du gure idazleak:

Empecemos por imaginar... Demos ahora un gran salto... Empecemos por descartar... Imaginemos...

Baina harago ere doa; irakurlearekin solas batean bezala ari da eta bere burua agertzen du:

Pero antes de entrar en estas cuestiones necesitamos nutrir un poco nuestra intuición. Con tal fin propongo un paseo de pocos párrafos por la materia. (65. or.) (83. or.)

Con ello nos atrevemos a... Me decido por una de las alternativas... Tamaño contraste no puede dejarse así... Demos un par de vueltas más... Vale, pero aún hay más... Pues bien, yo diría que, puestos a creer... Vamos a dar este paseo... Y llegamos al otro extremo... Además, ya es tarde para aferrarse a esta idea... Hemos revoloteado en torno a esta pregunta... y ya nos hemos posado sobre una de las respuestas... A eso vamos.

## Lagunarteko solas moduak

Gainera lagunartekoen solasen ezaugarri diren esaerak eta adibideak ditu erabiltzen:

¿Qué significa que una magnitud se conserva? Pues que podemos comparar el antes y el después de un suceso real y afirmar que tal magnitud es globalmente la misma. (34. or.) (38. or.)

¿Cuestión de ideología? Se puede asegurar, creo, que las grietas del método científico se llenan con pasta de ideología. (37. or.) (43. or.)

...donde todo vale, donde el azar campa a sus anchas. (39. or.) (46. or.)

Del nada vale (imposibilidad) hemos pasado al todo vale. Pero el mundo tampoco es así... Además ya es tarde para aferrarse a esta idea. (39. or.) (46. or.)

*El mirón de café* (29. or.) (32. or.)

El visitante, intrigado pero levemente mosqueado, duda. Tiene razón en hacerlo... (130. or.) (176. or.)

## Subjektibotasuna, sentimenduak

Bere buruaz mintzo da; bere sentimenduak eta besteenak ere, sartzen ditu:

Todas estas teorías comparten algo que fascina a muchos físicos, entre los que, desde luego, me incluyo. (28. or.) (30. or.)

Hasta ahora, lo confieso, me he escabullido a la hora de sugerir una respuesta. (29. or.) (31. or.)

Pero la idea de prohibición (más allá de la cual sólo existe la imposibilidad) sugiere, ahora lo creo, algo más. Por eso estoy a punto de dejar de escabullirme. (29. or.) (31. or.)

*El carácter de la ley física* [5], un libro del genial Richard Feynman, será recordado por dos o tres metáforas luminosas (que son la delicia diaria de miles de profesores de física). (29. or.) (32. or.)

La realidad de tipo C es una visión del mundo que encoge el alma de unos y alivia la de otros. Pensadores como Einstein o Spinoza se sienten cómodos... encuentran consuelo... (37. or.) (42. or.)

## Metahizkuntza

Idazkuntzan barnean eramatzen gaitu berarekin eta hizkuntza bera hartzen du bere gogoe-tetan.

Pero antes de entrar en estas cuestiones necesitamos nutrir un poco nuestra intuición. Con tal fin propongo un paseo de pocos párrafos por la materia. (65. or.) (83. or.)

Cerramos paréntesis. La frecuencia de las formas... (130. or.) (175. or.)

Como apunta el filósofo inglés A.J. Ayer, existen muchas acepciones diferentes en el lenguaje común para el término “por qué”, quizá tantas acepciones como acepciones tiene la palabra “causa”. (253. or.) (335. or.)

## Elkarriketaren erabilera

Baina literatura zientifikoaz harago, bestelako literatura alorren baliabideak ere erabiltzen ditu:

*Tuya-mía, el misterioso rito de unas hormigas cautivas*

Todo empezó con una visita a mi buen amigo Beto Brandoa,...

—¿Para qué hacen eso?

—¡No sé!

—Alguna razón habrá, ¿no?

—¡No sé!

Al día siguiente, en una reunión insólita (como mínimo poco frecuente), un físico y dos entomólogos fantasean para diseñar un plan que desentrañe el misterio. ¿Cuál?

—Si pudiéramos marcar individualmente las hormigas...

—Podemos hacerlo...

—Quiero decir...

... (139-142. or.) (185-186. or., 191. or.)

## Hizkuntza sortu

Formaltasunik gabeko hizkera arina erabiltzeaz gain, hizkuntza behartu ere, behartzen du, hizkuntza berria sortzen du, hala hitzak eta esaerak lotzeko modu bereziagatik:

Darwin: el ser humano no ocupa un lugar central en la evolución de los seres vivos, es sólo una especie más (digan lo que aún dicen nuestras tradiciones). (130. or.) (175. or.)

Digamos, en el lenguaje actual, un tubo forma una imagen de un solo píxel. Un tubo, un píxel; dos tubos, dos píxeles; tres tubos, tres píxeles. (189. or.) (252. or.)

Constitución de la realidad..., materia culta..., siglo desanimado...

Batzuetan esaldi osoraino zabalduz, gainera, berezitasun hori:

Pensar en la particular dosis de fundamental, natural y artificial que se integra en una forma particular de un objeto particular es una primera parte de un primer plan para comprender la forma. (131. or.) (178. or.)

...nola hitzak asmatuz ere:

Inacabando... No hay nada como un epílogo para inacabar un libro. (155. or.) (209. or.)

Formas autosemejantes... (250. or.) (332. or.), repreguntar, preconclusión (298. or.) (396. or.), incompletitud (280. or.) (371. or.)

Eta horretan ere ohartuki ari dela azaldu eta proposamenak egitera iristen da:

Si percibir la inteligibilidad es comprender, ahora hay que acordar una palabra para nombrar lo que significa percibir la belleza. Debe ser una palabra que, en su significado... la palabra no existe... no nos sirve la palabra embelesar... Inventar una palabra siempre parece presuntuoso, pero

la necesitamos. Probemos. “Bellar” de bello, no funciona. Pero “beldar”, de “beldad”, quizá sí... Además, y al igual que ha ocurrido en el tercer capítulo de la primera parte con la palabra “nervura”, la palabra existe, aunque con otro sentido... Sí, por segunda y última vez en este ensayo, y con el debido respeto, propongo a la Real Academia:

“**beldar** (de beldad). tr. 1 Captar la belleza. 2 (de bieldo) Usar el bieldo... (277-278. or.) (368-369. or.)

## Labur esanda

Ahozko komunikazioaren eskema erabiltzen du, galdera eta azalpena bikotean oinarritua; lagunarteko argudiatze moduan aurkezten du, zientzia liburuetan, objektibotasuna irudikatzeko erabili ohi den era inpersonalera erabili gabe, bere burua agertuz eta egiten dituen baieztapen erantzukizuna beregain hartuz, zientziaren alorrean ohikoa ez den konnotazioari ere leku eginez.

Ezagutza-alor anitzetan erabili ohi diren terminoak elkar trukatzen ditu, oso esparru eta maila desberdinakoak badira ere (física cuantitativa, termodinámica, matemática, filosofía, igeltserotza, laboraritza, zuzenbidea, eta abar luzea) eta hori guztia lagunarteko hizkeraz bilbatzen du (horren adierazgarri, liburuaren izena bera dugu: La rebelión de las formas, o cómo perseverar cuando la incertidumbre aprieta) eta halatan, agitz ulergaitz diren goi zientziaren ezagupenak, zientzialari ez diren jende arrunten ulermenera egokitzentzu diru.

Aipatu ditudan ezaugarri eta haien adibideen ere laburpen gisa, honako pasarte hau balia dakiguke:

*¿Cuál es la forma matemática más probable en la naturaleza?*

A lo mejor resulta que la respuesta salta tanto a la vista que ni siquiera se requiere montar una investigación demasiado aparatoso. En efecto, basta entrar en un mercado, mirar el cielo de la noche con un telescopio, observar una arena vieja con el microscopio, bucear en el mar, entrar en una tienda de regalos, atender al tráfico rodado o a la arqueología industrial o, sencillamente, darse una vuelta por el campo, para constatar que el primer premio de frecuencia se lo lleva la simetría circular. Se diría que para esta afirmación no hace falta una exploración demasiado exhaustiva y sistemática de la naturaleza. La simetría circular reina a sus anchas en todos los dominios de la realidad.

Los mecanismos de la emergencia de la esfera ya han asomado en diversos puntos de esta reflexión y volveremos a ello en el próximo capítulo. Tampoco será difícil apostar por la función fundamental y natural que hace comprensible su presencia en el mundo inerte y en el mundo vivo. ¿Y luego? ¿Cuál es la segunda forma más probable? ¿Y la tercera?... (153. or.) (207. or.)

### **Itzulpen testua**

*Formen matxinada, edo nola iraun ziurgabetasunak erasatean* 2007 urtean argitaratu zen; jatorrizko liburua argitaratu eta hiru urtera. Lehen esana dut jatorrizko liburuaren 2004ko argitalpena erabili dudala eta horren arabera egin ditudala konparaketak. Horrek, bi testuen erkatzean, beharbada pare bat gauzatzotan eragiten duela uste dut.

Hasieran esan dudan bezala, itzulpen lanaz esan dezaketen guztia ene irakurketatik atera dut eta, hartara, subjektibotasunaren ezinbestekoa erabat onartzen dut eta neure egiten. Jatorrizkoaren eta itzulpenaren irakurketek iradoki didatena azaltzen dut; batzuetan haien –idazlearen edota itzultzailaren– asmoen gaineko interpretazioak egiten ditut, eta horren arabera itzulpena epaitzera –barka bekit– ausartzen. Bestetan itzultzailen hautaturiko zerbait, itzulpen horretatik haragoko gogoetaren batera narama eta itzulpengintzan ari garenoi interesgarri gerta da-kigukeelakoan, edo niri, behintzat, interesatzen zaidalako, ematen dut hartara gogoa. Seinalatu dudan hainbat gauza, seinalatu besterik ez nuen egin nahi, hor zela azaldu, edo nik, bederen, hala uste nuela, itzulpena ulertzten lagun ziezadan eta zuei ere horretan lagundi nahirik.

### **Liburuaren antolaera**

Itzulpen testua jatorrizkoaren antolaera parez pare errepikatzen du, hizkuntza bakoitzaren ezaugarri berezkoei loturiko pasartetxo desberdin pare bat gorabehera. Liburuaren eskaintza, eskertza, aurkezpeneko aipua, hitzaurrea, bai eta atzeko eranskinak, denak ematen dizkigu euskarazko obrak ere, argitarapen zaindu batez, non alde bakarra baita itzulpeneko irudien, bai eta, oro har, liburuki osoaren, kalitate hobea. Horrek jadanik erakusten digu jatorrizkoaren baliokide izan nahi sendoz eginiko itzulpena dela, kalitatezko obra sortzeko asmoari lotua.

### **Hizkera xaloa**

Lehen aipatu dut jatorrizko testua zientzia zabaltzeko liburua dela, asmo didaktikoz egina, baina, aldi berean goi mailako gogoeta ere eskaintzen duela; aipatua dut, halaber, idazleak berekin daramala irakurlea, eta horretarako eguneroko bizitzatik hurbil den hizkera xaloa erabiltzen duela, konnotazioiei itzuri egin gabe eta bere burua agertuz. Esan dezadan orain, itzultzaila jatorrizkoaren idazleari gertutik jarraitzen saiatzen dela sutsu:

Esaldi laburrak eta orainaldia erabiltzea gorde du:

Existen objetos y fenómenos imaginables, pero imposibles. Por ejemplo, un sol cúbico. Por ejemplo, un planeta que invierta espontáneamente el sentido de su rotación. Esto significa que la Constitución de la realidad no es un conjunto vacío de leyes. Y no sólo eso. (26. or.)

*Badira objektu batzuk imajinagarriak baina ezinezkoak direnak. Eguzki kubiko bat, adibidez. Edo bere errota-zoranzkoa bere gisa alderantzikatuko duen planeta bat. Horrek esan nahi du errealityaren Konstituzioa ez dela hutsa den lege multzo bat. Eta ez hori bakarrik.* (28. or.)

Paragrafoen antolaketa eta haien barneko lotura elementuak, bai eta hitzen arteko lotura bereziak (“temperatura prohibida”, “velocidad prohibida”, ez baita trafikoaz ari) bere horretan gordetzen saiatzen da:

Existen otro tipo de verdades en física de fuerte carácter prohibitivo. La temperatura de cualquier objeto real, por ejemplo, debe ser mayor que 0º Kelvin. Cualquier otra temperatura está prohibida en la realidad de este mundo. La velocidad de cualquier objeto real, otro ejemplo, no puede ser mayor que la velocidad de la luz, unos 300.000 kilómetros por segundo. Cualquier velocidad superior a la de la luz está prohibida en la realidad de este mundo. (34. or.)

*Badira beste mota bateko egiak fisikan, debekuzko izaera oso bortitzekoak. Edozein objektu errealen tenperaturak, adibidez, 0 Kelvinetik gorakoa izan behar du. Beste edozein tenperatura debekaturik dago mundu honetako errealitatean. Edozein objektu errealen abiadura, beste adibide bat, ezin izan (...) Argiarenak gorako edozein abiadura debekaturik dago mundu honetako errealitatean.* (39. or.)

Gordetzen du parataxirako joera, bai eta argibideak parentesi barruan ematea ere, (ikus: 27-29 orrialdeak,edo 38-43), baita muturreko erabileretan ere:

El carácter de la ley física [5], un libro del genial Richard Feynman, será recordado por dos o tres metáforas luminosas (que son la delicia diaria de miles de profesores de física). Una de ellas consiste... (29. or.)

*Lege fisikoaren izaera [5], Richard Feynman jenialaren liburu bat, bizpahiru metafora argitsuren-gatik gogoratuko da (milaka fisika irakasleren egunero gozagarrria baita).* (32. or.)

Alabaina, jatorrizkoak parentesiak esaldiak errazteko, errepite nagusiaren ildoa argiago uztoko erabiltzen dituela iruditzen zait eta baliabide hori euskarara ekartzean, parentesien koka-gunea dela eta, batzuetan argitu ordez iluntzen duela esango nuke. Jatorrizko testuaren idazleak irakurleari irakurketa errazten dion lekuau, itzultzaleak ez ote dio gehiegi eskatzen? Itzultzalea ausart aritu dela esan dut lehen; ausartegi ote hemen?:

En muchas situaciones de inestabilidad son (justamente) fluctuaciones infinitesimales de las condiciones iniciales las que deciden el futuro del sistema. (33. or.)

*Ezegonkortasun-egoera askotan, (hain zuzen) hasiera-kondizioen fluktuazio infinitesimalek erabakitzentz dute sistemaren etorkizuna.* (37. or.)

Si la Constitución de la realidad fuese un conjunto vacío, todo lo lógicamente viable (sin contradicciones internas) sería igualmente verosímil. (26. or.)

*Errealitatearen Konstituzioa hutsa den multzo bat balitz, (barne-kontraesanik gabe) logikoki bideragarri den guztia litzateke berdin egantzeko.* (27. or.)

Bi adibide horietan ikusten da gaztelaniazko testuak parentesiak ongi babestuak dituela eta erraza dela parentesien gainean salto egin eta esaldia segitza, aurretik emana baitzaigu saltorako abiapuntua (lehenean “son...” eta bigarrenean “todo lo lógicamente viable...” Euskalazkoan koma bakarrak egin behar du lan hori. Itzultzaleak parentesiaren jokoa mantend-

tzeari eman dio lehentasuna eta erantzun dio bipilki erronkari, baina hor al zen erronka? Edo erronkarik al zen?

Jatorrizkoaren parafrasiak, errepiakenak, metaforak, galdera/erantzunen jokoa, elkarrizketak, lagunarteko solas moduak; berezitasun horiek guztiak gorde ditu itzulpenak ere, eta gaztelaniazko estilo laxo eta arina euskarazko halako batez ordezten saiatzen da itzultzalea, gaztelaniazko testuaren estilo informal eta bizia, eguneroko hizkera arruntaz bustirikoa, euskarazko estilo arin eta laxo, informal batez ematen duelarik, hitzez hitzeko itzulpen zurrunean ito gabe. Horretarako, euskararen gramatika beharrei begiratzeaz gain, estiloari ere erreparatzen dio, testua albait arin eta argi izan dadin euskaraz ere:

Diré por qué:

*Hona zergatik:*

Todo empieza con la selección de piezas.

*Aurren-aurrenik, piezak aukeratzea dator.*

Un museo es un buen lugar para pensar porque...

*Hara zergatik den museo bat leku ona pentsatzeko:*

¿A quién puede interesar recorrer estas páginas? Yo diría que a cualquier lector que no se encoja de hombros ante una pregunta como ésta: ¿qué tienen en común objetos tan dispares como el Sol, un planeta, una naranja, una pelota, un huevo de caviar o una burbuja en una copa de cava?

*Nori interesa dakioke orriotan barneratzea? Edozein irakurleri, nik uste, baldin eta batere axola bazaizkio honelatsuko galderak: zerk kidetzen ditu, hain elkarren desberdin izanik, hainbat objektu, hala nola Eguzkia, planeta bat, laranja bat, pilota bat, kabiar-arrautza bat edo xanpain-kopa bateko burbuila?*

Me apresuro a admitir que este ensayo es un ejercicio inacabado en dos tiempos inacabados.  
(16. or.)

*Lehenbailehen aitor dezadan ariketa amaitugabea dela saio hau, bi ekinaldi amaitugabek osaturik.*  
(14. or.)

La realidad se compone de dos cosas: objetos y fenómenos. (19. or.)

*Errealitatearen osagaiak bi dira: objektuak eta fenomenoak.* (17. or.)

Pero la idea de obligación como un caso límite de la idea de prohibición (más allá de la cual sólo existe la imposibilidad) sugiere, ahora lo creo, algo más. Por eso estoy a punto de dejar de escabullirme. (29. or.)

*Baina betebeharra debekuaren muga-kasutzat irudikatzeak (handik aurrera ezinezkotasuna baino ez dagoela), hala dut nik orain usteak, zerbait gehiago iradokitzen du. Horregatik nago izkin egiteari uzteko zorian.* (31-32. or.)

Hubo un tiempo en que la realidad era una especie de sopa de quarks más o menos homogénea  
(19. or.)

*Behiala, halako quark-zopa gutxi-asko homogeneo baten tankeratsukoa zen errealtitatea. (17-18. or.)*

...han accedido a la realidad (19. or.)

...errealtateratu diren (18. or.)

...un planeta que invierta espontáneamente el sentido de su rotación... He aquí un indicio para intuir el carácter de una ley de la naturaleza. (26. or.)

...bere errortazio-noranzkoa bere gisa alderantzikatuko duen planeta bat. ...*Horra hor zantzu bat, izadiaren lege bat zertsu den intuitzeko.* (28. or.)

Con ello nos atrevemos a acariciar una idea sobre el carácter general de una ley de la naturaleza. (28. or.)

*Horrenbestez, has gintezke tankeratzen izadiaren lege bat, oro har, nolatsukoa den. (30. or.)*

Tratemos de avanzar entonces con la idea de que la Constitución de la realidad tiene una estructura asimilable a una colección de restricciones. (27. or.)

*Aurrera egiteko, bada, demagun mugaketa-bilduma baten paretsuko egitura duela errealtitatearen Konstituzioak.* (28. or.)

Honainokoa aski litzateke, itzulpena, aurkezpeneko lehen hitzetan erabili dudan “ausart” hitzaz definitzeko, baina kontuan hartu behar da, gainera, gaztelaniazko testuak eskaintzen duen informazioa berez katramilatsua izanik, gaztelaniaz irakurriko duen edonorentzat testua ulerterrazza ez izanik, zailtasuna erruz areagotzen dela euskaraz irakurtzerakoan, itzulpenaren kalitatea alde batera utzirik ere, besterik gabe euskarak –eta euskaldunok– alor horietan duen –eta dugun– garapen eskasaren ondorioz. Horrek berak, besterik gabean, erruz areagotzen du euskarazko testua entelegatzeko zailtasuna. Eta horrez gain, zailten du euskaratze lana bera ere, finkatu gabeko hitz eta esamoldeekin, jorratu gabeko lurretan, jokatzera behartzen baitu itzultzalea eta bideak irekitzera, formula berriak asmatzera.

### Abstrakzio maila gora eta euskararen gaur egungo mugak

Esan bezala, beraz, jatorrizko testuak, hizkera arruntean aritzen saiatuagatik, informazio korapilatsuak ematen ditu eta haien ulertzeak deskodetze ahalegin handiak eskatzen ditu; euskaraz zientziaren logikarako kode horiek ez dira beti finko eta zehazturik, edo irakurleok ez ditugu ezagutzen edo ez dugu, bederen, haien erabiltzeko ohitura; horrek erruz zailtzen du ulertzea, eta horri loturik, ulertzeko moduan ematea edo euskaratzea:

Nuestra intuición necesita tomar impulso y darse otro paseo por la materia. La cantidad de materia inerte del universo se estima en dos billones y medio de trillones de cuatrillones de kilos... unos mil ochocientos billones de kilos... sólo tres décimas de billones de kilos... (70. or.)

*Gure intuizioak abiada hartu behar du eta beste osteratxo bat egin materian zehar. Unibertsoko materia biziduna, guztira, honako kantitate hau dela jotzen da: bi bilioi eta erdi triloi kuatriloi kilo... mila zortziehun bilioi kilo inguru... hiru hamarren bilioi kilo... (90. or.)*

Para dar una idea, un virus (una estructura relativamente simple en la frontera que separa los vivos de los no vivos) tiene la friolera e impronunciable cifra de un uno seguido de 36.000 ceros de estados diferentes; esto es, para construirlo a partir de sus componentes más sencillos se necesita un manual de instrucciones de 120.000 bits. (71. or.)

*Hori zertsu den irudikatzeko, birus batek (biziak eta ez-biziak bereizten dituen mugako egitura erlatiboki simple horrek) badu egoera desberdinez honako zifra ahoskagaitz honi dagokion kopuru gaitza: bat zenbakia eta atzetik 36.000 zero; alegia, bere osagai sinpleenetatik abiaturik hura eraikitzeko, 120.000 biteko erabilbide-eskuliburua behar da. (91. or.)*

Pensar en la particular dosis de fundamental, natural y artificial que se integra en una forma particular de un objeto particular es una primera parte de un primer plan para comprender la forma. (131. or.)

*Objektu partikular baten forma partikularrean integratzen den oinarrizko-, natural- eta artifizial-dosi partikularra gogoan hartza lehen parte bat da forma konprenitzeko lehen plan baten barruan. (178. or.)*

Pero, por otro lado, el gozo está también en la predicción fallida, en ese detalle que no encaja con las pautas descubiertas. (279. or.)

*Baina, beste alde batetik, orobat datza gozamena iragarpen huts eginean, aurkituriko eredu-arauekin ondo ezkontzen ez den xehetasun horretan. (370. or.)*

Hor ikusten da nola gaztelaniaz arrunt edo ez bereziki ulergaitz diren hitzetan ere, euskaraz ez den esanahia horren finko eta ulergarri. Hori ez da itzulpen lan baten esparruan konpon daitzeen gaitza; hiztun guztion artean konpondu beharreko gaur egungo muga, arituan agertzen zaigun –arituan agertu eta arituan gainditzen goazen– ezina dugu hori.

Noiz edo noiz, ulertzea itzulpenak berak zaitzen duela, edo berdin-berdin esaten ez duela iruditu zait:

Pero también aquí existe una rara y delicada inestabilidad. Es la idea central de lo que podríamos llamar el tercer principio del método científico, el principio dialéctico [78]. (280. or.)

*Baina bada hor ere ezegonkortasun bitxi eta delikatu bat. Alegia, printzipio dialektikoaren, metodo zientifikoaren hirugarren printzipioa deitu geniezaiokeenaren ideia nagusia [78]. (280. or.)*

Beste adibideren batean ere aipatu dudan bezala, hemen ere gaztelaniazko testuak hasieratik abisatzen digu zerbait datorrela eta berekin eramatene gaitu eskutik, amaia arte tentsioari eutsiz, eta behin horra heldurik esaldia borobiltzen du. Euskarazko lotura logikoak ez dira horren argiak, horren indartsu.

Una Constitución de la realidad demasiado restrictiva... (27. or.)

*Errealitatearen Konstituzio mugaztale batek... (29. or.)*

... las leyes más fundamentales de la física... (33. or.)

*...fisikaren ginarrizko legeek... (38. or.)*

El valor de la magnitud que se conserva viene fijado por el valor de las condiciones iniciales.  
(34. or.)

*Kontserbatzen den magnitudearen balioa hasiera-kondizioek finkaturik dator. (38. or.)*

En general, la realidad es una trama de evoluciones posibles, una especie de nervura (adelanto una palabra nueva) en el terreno de las alternativas... En la selección artificial o cultural (ahora adelanto un concepto) selecciona el seleccionador, pero... (31. or.)

*Oro har, bilakaera posiblezko bilbe bat da errealtitatea, hautabideen eremuko halako (hitz berri bat aurrera dezadan) zain-egitura bat edo... Hautespen artifizial edo kulturalean (horra kontzeptu bat aurreratu) hautesleak hautesten du, baina... (34. or.)*

“adelanto una palabra nueva” / “ahora adelanto un concepto” elkarren arteko lotura galtzen  
edo lasatzen da itzulpenean.

Selección fundamental, selección natural y selección cultural, o la cuestión de empezar a existir  
y la de seguir existiendo. (60. or.)

*Oinarrizko hautespena, hautespen naturala eta hautespen kulturala, edo existitzen hasteko eta existitzen jarraitzeko kontua. (75. or.)*

Bi kontu zirenak bakarrera bildu ditu.

Dena den, gauzatxo horiek ez dira esanguratsuak liburua oro har harturik; bakanak dira liburu honetan, baina itzulgintzan maiz gertatzen zaizkigulako, itzulpen guztietai, edo ia guztietai agertzen direlako seinalatu ditut, horrelakoetan sortu ohi diren pasarte gogor, ilun, gaitz, edota herren horien zirrikituak ulertzen saiatzen asmoz.

Goian eman ditudan adibide horietan guztietai, jatorrizkoaren interpretazioetik euskarako testua sortzera artean halako lerratze txikiak gertatu direla dirudi, ahazte modukoren bat edo: zenbatzaile bat, lotura logiko bat edo beste paragrafoaren antolaketan, xehetasun xeheren bat, azkenerako edo esanahia bakandu edo iluntzera eramateraino.

Hori esan eta ekarri nahiko nuke orain gogora jatorrizko testuaren gogoeta korapilatsuaz, eta horren bideratzeko idazleak erabili duen estilo xalo eta arinaz lehen esan dudana, bai eta itzultzaleak euskara ere halako estiloaz nola ederki eman duen jatorrizkoaren parekoa eta nola, zaitasunak zaitasun, liburuaren gogoeta sakon eta katramilatsua ulertzeko moduan eskaientzera iritsi den. Ez da nolanahiko erronka; ez gaztelaniaz eta areago euskara, baina itzultzaleak –ausart jokatu duela esana dut jadanik– euskarak omen dituen mugen aitzakia txepela bazter utzirik, erakusten du hala euskara nola bere burua sinesten dituela eta, erronkari tamaina harturik, jatorrizko idazleak argitasunaren bila ibili dituen bide guztietai jarraitu zaio eta euskara ere irakurgai eder eta indartsua eskaintzen digu:

La suma simple de individuos no da un nuevo individuo... Un búfalo es más individuo que una manada, pero quizás también lo sea más un hormiguero que una manada, aunque el hormiguero lo sea menos que una hormiga... Como se habrá notado, hemos cambiado la palabra individualidad por la de individuo al atravesar la frontera de los seres vivos. La idea de individualidad o de indi-

viduo no cambia con continuidad, sino discretamente, a saltos. Sin embargo, la idea parece tener grados... (51. or.)

*Banakoentzako batura soilak ez du ematen banako berririk... Bufalo bat saldo bat baino banakoagoa da, baina orobat dateke banakoagoa inurritegi bat saldo bat baino, nahiz eta banakotik gutxiago izan inurritegi batek inurri batek baino... Irakurleak nabarituko zuenez, banako bilakarazi dugu banakotasun hitza izaki bizien muga zeharkatzean. Banakotasunaren edo banakoaren ideia ez da jarraitutasunez aldatzen, koskaz koska baizik, jauzika. Hala ere, ideiak baditu, itxura batean, graduak... (63. or.)*

### Euskal hiztegiaren egungo mugak eta ahalak, zenbait proposamen

Itzultzaiak gaztelaniaz esanik eman zaiona euskaraz esateko ditugun baliabideen bilatze eta proposatze lan etengabe horretan, maiz esamolde eta hitzen bila ibili behar izan du eta horratik hainbat proposamen egin digu; hona adibide batzuk:

Lehenik euskarazko adibidea eta erdarazkoa horren ondoren emanen ditut orain, argiago gertatuko delakoan:

Agertu zaidan lehena, “**muga**” eta haren ingurukoak:

*Horregatik, zeinahi ere objektuz ari garela, hiru kontzeptu aipa daitezke, hark berezko dituenak: haren barnea, haren kanpoa eta bata bestetik bereizten duen muga. Ez dio axola nolako trinko, jarraitu, lotu edo zehatzta den muga... Tipikoki mugari dagozkion tasunak, azkenik, forma nahiz tamaina. (18. or.)*

Por ello, dado un objeto cualquiera, se puede hablar de tres conceptos que le son propios: su interior, su exterior y la frontera que separa lo uno de lo otro. No importa cuán compacta, continua, conexa o nítida sea la frontera... Propiedades típicas de la frontera son la *forma* o el *tamaño*. (20. or.)

*Zirriborratu berri dugu ideia, eta bestela errepikatuko dugu orain: bi objekturen identitatea guztiz bat badator, orduan objektu bera dugu. Behin muga-xehetasun hori onarturik, begira diezaiokagu bi objektu... (23. or.)*

Lo acabamos de apuntar y lo repetimos ahora de otra manera: si la identidad de dos objetos coincide exactamente, entonces es que se trata del mismo objeto. Una vez admitido este detailed límite podemos atender a aquello que... (23. or.)

*Izadiak zori-dosi baterako duen eskubidea eta betebehar baino mugaketa gehiago dituen errealtitate baten konstituzioa (27. or.)*

El derecho de la naturaleza a una dosis de azar y la constitución de una realidad con más restrictiones que obligaciones (26. or.)

*... Lege bat, gutxieneko kontuan, mugaketa bat da. Horra hor zantzu bat, izadiaren lege bat zertsu den intuitzeko.*

*Xarma du ideiak. Inguratzen gaituen mundua anizkoi, sortzaile eta aldakor begitantzten bazaigu, mugaketei zor zaie hori: ez du edozerk balio errealtatera iristeko, eta ez du zernahik balio hartan irauteko. Aurrera egiteko, bada, demagun mugaketa-bilduma baten paretsuko egitura duela errealtitatearen*

*Konstituzioak. Zenbat eta handiagoa izan mugaketa jakin baten mugatze-indarra, orduan eta txikia-goa da objektu bat edo gertakari bat gauzatzeko aukeren domeinua. Ziurgabetasun-domeinu bat da; berezko kontingenziatik izadiari eskubidez dagokion paska, letra larrizko Zori-dosia, legerik gabeko lurraldea. Bi muga ditu domeinu horrek.*

*Alde batetik, ezinezkotasuna. Mugaketa gehiegi izanez gero, baliteke existentziarako beharrezko duen gutxieneko zirritu hori gabe geratzea objektu bat. Errealitatearen Konstituzio mugatzaire batek... (28. or.)*

...Una ley es, como mínimo, una restricción. He aquí un indicio para intuir el carácter de una *ley de la naturaleza*.

La idea tiene su atractivo. Si el mundo que nos rodea se nos antoja diverso, creativo y cambiante es porque hay restricciones, porque *no todo vale* para acceder a la realidad y porque no todo vale para permanecer en ella. Tratemos de avanzar entonces con la idea de que la Constitución de la realidad tiene una estructura asimilable a una colección de restricciones. Cuanto más fuerte es el poder restrictivo de una determinada restricción, menor es el dominio de alternativas disponibles para la ocurrencia de un objeto o un suceso. Es un dominio de incertidumbre, el margen de contingencia intrínseca a la que tiene derecho la naturaleza, la dosis de Azar con mayúscula, el territorio sin ley. Este dominio tiene dos límites.

Por un lado está la imposibilidad. Si hay demasiadas restricciones, es posible que un objeto se quede sin el resquicio mínimo necesario para su existencia. Una Constitución de la realidad demasiado restrictiva dejaría a la presunta realidad sin habitantes. (26-27. or.)

*Aukera kontzeptuaren muga-kasu bat da hori: aukera behartua...*

*Betebehar bat, orduan, debekuaren muga-kasutzat interpreta daiteke... (30. or.)... gure begietan saihestu ezineko betebehartzat ageri diren lege batzuk ez dira mugaketa bortitz batzuen adierazpena baino. Betebeharra mugaketa-ilusio bat da. (31. or.)*

Se trata de un caso límite del concepto de elección, la elección obligada...

Una obligación puede interpretarse entonces como un caso límite de prohibición...

...leyes que se presentan a nuestros ojos como obligaciones ineludibles no son más que la expresión de fuertes restricciones. La obligación es una ilusión de restricción. (28. or.)

*Baina betebeharra debekuaren muga-kasutzat irudikatzeak (handik aurrera ezinezkotasuna baino ez dagoela), hala dut nik orain ustea, zerbait gehiago iradokitzen du. (31. or.)*

Pero la idea de la obligación como un caso límite de la idea de prohibición (más allá de la cual sólo existe la imposibilidad) sugiere, ahora lo creo, algo más. (29. or.)

*Hona iritsiak, horrenbestez, B errealityeen beste muturrera. A moldeko errealityatera, alegia: hain-bestet laxatu ditugu mugaketak, ezen ez baita geratzen halakorik batere. Mugaketarik gabeko esparruan muga da, non zernahik balio baitu, non... (46. or.)*

Y llegamos al otro extremo de las realidades B. Es la realidad del tipo A: hemos relajado tanto las restricciones que ya no queda ninguna. Es el límite del dominio sin restricciones, donde todo vale, donde... (39. or.)

Honako puntuaren onartu beharra dut gaztelaniazko testua irakurri ez banu ez nekikeela nongo mugatan nenbilen. Gaztelaniaz “restricción” hitzak “limitar” eta “recortar” adierak har ditzake, hau da, mugatze edo murrizte esanahiak har ditzake, eta itzulgaian “limitar” gisa uler-tu behar delarik ere, gero testuan “límite” ere agertzen da, “restricción” ez beste esanahiaz, eta bestalde “restricción” ere bai. Itzultzaleak ez du “restricción” ordezkatzen arruntago zaigun “murrizketa” erabili nahi izan, kentze zentzu gehiegi zuelakoan edo, segurki, itzulgaian “restricción” hitzaren mugatze zentzu baita nagusi. Zentuzkoa dirudi hautua, baina hala eginik ere, baldin eta batera eman ez balitu edo “límite ez balu beti “muga” erabiliz adierazi, eta adierazi ere gaztelaniazko izena euskaraz ere izen batez, edota kontzeptuen arteko lotura logikoak gehiago zehaztu balitu, agian argiako zatekeen, baina hitz elkarketaz kontzeptualizatzek are lausoagoa egin du zenbait mugaren esanahaia.

Eman berri ditudan adibideak luze eman ditut, ulertzeko errazago egite aldera, bai eta hor diren beste elementu batzuk ere aipatzera noalako:

*Bi muga ditu domeinu horrek (28. or.)*

Este dominio tiene dos límites (26-27. or.)

*Mugaketarik gabeko esparruaren muga da (46. or.)*

Es el límite del dominio sin restricciones (39. or.)

*Zenbat eta gehiago konprimitu, orduan eta gehiago konprentzen da, handiagoa delako konprimi-tuak ordezkatzen duen barrutia, hots, zabalagoa delako konprentuaren irismena. (371. or.)*

Cuanto más se comprime, más se comprende, porque mayor es el dominio que representa lo comprimido, es decir, más vasto el alcance de lo comprendido. (280. or.)

“Domeinu”, “barruti” eta “esparru” erabiltzen ditu “dominio”ren ordainez. Lehen adibideko terminotzat hartu duelako-edo, eta besteak, aldiz, hitz arrunt gisa. Elhuyar-ek eta UZEIk “barruti”, “eremu” eta “alar” proposatzen dituzte, Sarasolak “arlo” eta matematiketarako “domain”, eta “domeinu” eta “eremu” proposatzen ditu Euskaltermek hemen erabilia den alorretarako.

“Aukera” eta “hautespen” bereizten ditu, bata “elección” eta bestea “selección” adierazteko. Baino “aukera” ez da horren zorrotz erabiltzen eta “se puede”, “posibilidad” bezala, “alternativa” bezala (nahiz hori gehienetan “hautabide” gisa eman), bai eta “opción” esanahiaz ere erabiltzen du. Erabilera honetan, “concepto de elección” esateko, letra etzanaz seinalatu du, seguru asko hurrengo hitzarekiko harremana argitze aldera:

Aukera kontzeptuaren muga-kasu bat da hori: aukera behartua... (30. or.)

Se trata de un caso límite del concepto de elección, la elección obligada... (28. or.)

*Non aurkitzen du hautespen naturalak bere aukera-eremu berezia? (144. or.)*

¿Dónde encuentra la selección natural su campo propio de opciones? (107. or.)

**Arrautza-antzeko:** *esferikotik arrautza-antzekoagora (24. or.)*

De esférica a cada vez más ovoide (24. or.)

Total: *energiaren totala* (34.or.), *inurrien totala* (187. or.)

**Erkide:** *esentzia erkidea* (196. or.) esencia común (144. or.) Todas estas teorías comparten algo en común: *badute zerbait erkide*.

**Oldar:** insistencia:

*Aldakuntzaren lege orokorra, errealden horrek halako izaten jarraitzeko duen oldarra gorabehera* (143. or.)

La ley general del cambio, pese a la insistencia de lo real en seguir siéndolo (107. or.)

*Mundu honetako gauza orok ez dio oldar beraz aurre egiten munduaren gainerakoaren ziurgabearnasunari.* (114. or.)

No toda cosa de este mundo inerte resiste con la misma insistencia la incertidumbre del resto del mundo. (87. or.)

Bide batez, ikus daiteke “inerte” ahantzi duela itzultzzaileak.

**Kidearte:** ... “*superorganismoa*” *deitu izan zaio batzuetan intsektu-kidearte bati...* (62. or.)... a veces se ha llamado “superorganismo” a una sociedad de insectos... (50. or.)

**Eredu-arau:** *Baina, beste alde batetik, orobat datza gozamena iragarpen huts eginean, aurkituriko eredu-arauekin ondo ezkonitzen ez den xehetasun horretan.* (370. or.)

Pero, por otro lado, el gozo está también en la predicción fallida, en ese detalle que no encaja con las pautas descubiertas. (279. or.)

Hona iritsita, horri loturiko beste adibidea ekarri nahi dut, marratxoaren erabilera sor dezakeen nahasmendua seinalatzeko:

*Hori da eskulan erara batek irits dezakeen konprimitze-konprenitze guztia* (196. or.)

Es toda la compresión-comprensión alcanzable de una forma artesanal. (145. or.)

Hala eredu-arauekin nola konprimitze-konprenitze bikoteekin, ez dago jakiterik, testuinguruari so eginik, besterik gabean, zein harreman ezartzen duen marratxoak bikoteen bi elementuen artean: eredu diren arauak dira ala ereduak eta arauak dira batera? Ereduen arauak? Konprimitzearen konprenitza? Konprimitzeko konprenitza? Konprimitze eta konprenitza?

Bi elementuren arteko marratxo horrek gaur egun horrenbeste esanahi posible biltzera eraman dugunez, ez da beti erraz izaten kasu bakoitzean, testuingurua ez bazaigu argigarri, zer duen adierazten. Ziurgabetasunaren esparrua handitzen du eta esparruko ziurgabetasun sentzazioa areagotzen.

Adibiderako eman berri ditudan izendatze horietan guztieta eta beste hainbatetan ez dira bat etortzen hiztegigile edota hiztun guztiak; aski da hiztegi batzuk ikuskatzea, hor diren horien bestelako aukerak eta hautuak topatzeko: komun, amankomun, jarraibide, eredu, arau, lege, pauta, guztizko, erabateko, oso, guztira, osotasun, arrautzakara, arrautza formako, oboide, atzeraezintasuna, itzulezintasuna eta abar. Itzultzzailea hautatu beharrean izan da, beraz, eta horrekin proposamenak egin dizkigu euskal irakurleoi, jatorrizko idazleak egin dituenaz harago.

Nahaste-borraste hori guztia itzulpen lan baten helmenaz haragoko katramila dugu, noski. Hemen aipatu, gure eguneroko lanerako traba handia zaigulako dut aipatzen, bai eta gure eguneroko itzulpengintza, katramila –eta kalapita– horietan konponbidearen erakusle gertatzen delako maiz, eta gero eta gehiago izan daitekeelako.

Itzultzaileok ongi dakigu itzulgai baten aitzinean ez dugula ordaina nola edo hala eman gabe geratzerik; jatorrizko ordezkatuko duen zerbait eman arte ahalegin guztia behar dugula egin. Beste hizkuntzetan emanikoak euskarara ekartzeko zubiak oraindik eraiki gabe badira ere, guk aurrera egin behar dugu, zubia noiz eraikiko diguten zain egon gabe. Balia bekigu denoi eta bereziki liburu gaitz honetan proposamenak egitera ausartu den itzultzaileari, honako esae-ra zaharra: “Saiatu zenak itsasoa iragan omen zuen”.

### Hizkuntzaren erabilera nabarmenak

Lehen esan dudan bezala, jatorrizko testuaren idazleak, gai korapilatsuaz mintzatzeaz gain, hizkera berezia erabiltzen du, batzuetan oso nabarmena.

Horietan itzultzailea jarraitu ohi zaio eta euskaraz ere jatorrizko hitz jokoak eta hitzen arteko lotura berezi edo nabarmenak eskaini ohi dizkigu, batzuetan –lehen esan dudanaren harira, euskararen erabileran eta garapenean dugun atzerapenarengatik– ulermenaren kaltetan badira ere:

Un museo es un buen lugar para pensar porque en él coinciden objetos e ideas que de otro modo difícilmente llegan a acercarse entre sí. Eso hace crecer la posibilidad de colisión. Las hay de tres clases: objeto con objeto... (15. or.)

*Hara zergatik den museo bat leku ona pentsatzeko: bestela nekez elkartzen diren objektuak eta ideiak biltzen dituelako. Talkaren probabilitatea areagotzen du horrek. Hiru eratakoak dira talkok: objektua objektuaren kontra... (13. or.)*

Gaztelaniazko testuan ezohiko lotura nabarmen da berehala; ez da dudarik; euskarazkoan, aldiz, durduzaran gaitu, zalantza sortzen digu. Aipa dezadan, halere, itzultzaileak laguntza eman digula aztoramendu eta dudatik atera gaitezen, gaztelaniazko testuak baino gehiago zehazten baititu harremanak eta erreferenteak (“talkok”, “kontra”). Hizkuntzen –eta hizlarien– arteko aldea berdintzen digu hala eginez.

Dena den, gehienetan jokoak errepika ditzake arazorik gabe edo arazoak ongi konponduta:

Cualquier otra temperatura está prohibida... (34. or.)

*Beste edozein temperatura debekaturik dago... (39. or.)*

Los conceptos y preguntas caen ahora como fruta madura. (155. or.)

*Fruta heldua bezala erortzen dira orain kontzeptuak eta galderak. (210. or.)*

Las preguntas también se desgranan por simetría. (156.or.)

*Simetriaz ere aletzen dira galderak (210. or.)*

¿Qué tal le va a la espiral en los mundos inerte, vivo y culto? (196. or.)  
Zer atarramentu du espiralak mundu bizigabean, bizian, kultuan? (262. or.)

### Hizkuntzarekin jolasean

Jatorrizko testuan hitz jokoak eta erabilera nabarmenak nonahi daude. Euskarazkoan haiek gordetzeko joera nabari da; alabaina, batzuetan euskaraz ez da horrelako hitz jokorik egiterik (edo ez da komeni, irabazten dena baino gehiago galtzen delako), eta itzultzalea azalpen batez hurbiltzen zaio galduetako jokoari:

...la palabra constitución, referida a la realidad, evoca la estructura de la propia realidad.  
(26. or.)

*...konstituzio hitzak, errealityeaz ari garela, errealityearren beraren egitura dakarkigu gogora; hura nola eraturik dagoen, alegia.* (27. or.)

Edo jatorrizkoaren jokoa eman, baina gaztelaniazko idazleak nabarmen azaldu nahi izan duena nabarmendu gabe utziz:

La comprensión aumenta con la compresión. (280. or.)  
Konprimitzearen arabera areagotzen da konprenitza. (371. or.)

Bestetan bete-betean edo areago errepikatzen da jokoa:

Comprender la comprensión (142. or.)  
Konprenitza konprenitza (191. or.)

De aquí surge, creo, un germen de respuesta a una pregunta muy especial. (28. or.)  
*Hortik ernetzen da, ustez, galdera guztiz berezi baten erantzun-kimu bat.* (31. or.)

Hemos mencionado, aunque no desarrollado aún, la idea de selección cultural (pero, como el lector habrá intuido, está al caer). Ni la inteligencia surgió antes que la vida, ni la vida antes que la materia inerte. (73. or.)

*Aipatua dugu, baina ez oraindik garatua, hauzen kulturalaren ideia (hala ere, irakurleak usaina hartuko zionez, aurki dugu haren txanda). Ez adimena agertu zen bizitzaren aurretik, eta ez bizitza materia bizigabearen aurretik ere.* (95. or.)

Paragrafo horretan ikus daiteke nola, beste pasarte batzuetan itzulpenak, ezinbestean, galdu duen adierazkortasuna horko “usaina hartu” horrekin berdintzen duen. Berdin gertatzen da hurrengo esaldiarekin: gaztelaniazko testuak, oro har, erabiltzen duen estilo berrizalearen kutsua ekartzen dio esaldi bizi eta eder horrek euskarazkoari ere.

Jatorrizko paragrafoan ageri den beste ezaugarri bat, maskulinoz aritzearena, alegría, galtzen da, aldiiz, euskarazkoan; baina horrek ere badu bere berdintzea liburuaren beste pasarte batean, non “andar a sus anchas” euskaraz “jaun eta jabe izan” bihurtzen baita (153. or. / 207. or.), edota “Real Academia” “Errege Akademia” izendatzen duenean ere (57. or. / 71. or.). Hala-

rik ere, berdintze hori itzultaileak baino, segurki hizkuntza bakoitzaren ohiturek berek egin dute, halabeharrez, elkarren oso antzeko direlako, androzentrismoari dagokionean, hizkuntza –gizarte– oro.

### Elkarrizketak

Lehen aipatua dut jatorrizko idazleak testua bizi eta arin egiteko, beste baliabideren artean, elkarrizketak erabiltzen dituela; itzultaileak ere ematen dizkio halakoetan euskarazko testuari, bizia eta aruntasuna; hona hemen halako pasarte baten gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak:

- ¿para qué hacen eso?
- ¡No sé!
- Alguna razón habrá, ¿no?
- ¡No sé!
- ¿Imposible saberlo?
- ¡No sé!

Al día siguiente, en una reunión insólita (como mínimo poco frecuente), un físico y dos entomólogos fantasean para diseñar un plan que desentrañe el misterio. ¿Cuál?

- Si pudiéramos marcar individualmente las hormigas...
- Podemos hacerlo...
- Quiero decir como si fueran atletas en unos juegos,...
- Podemos hacerlo...
- Si además pudiéramos...
- Podemos hacerlo... (139. or.)

- Zertarako aritzen dira horrela?
- Ez dakit!
- Izango da arrazoiren bat, ezta?
- Ez dakit!
- Ez dago jakiterik?
- Ez dakit!

Biharamunean, bakanetan bezalako (*edo gutxienez, ohi ez bezalako*) bilkura batean, fisikari bat eta bi entomólogo hor ari dira asmaketan, misterioa argitzeko plan bat diseinatu beharrez. Zein?

- Inurriak banaka markatzerik bageneuka...
- Bada modua...
- Alegia, joko batzuetako atletak balira bezala, inurri bakoitza ezagutzeko moduan,...
- Bada modua...
- Eta, horrez gainera, modua bagenu...
- Bada modua... (186. or.)

Argi uzten digu pasarte eder horrek itsasoa pasatzen saiatu... eta igeri zekienak zuela iragan!

Jatorrizkoak, hainbatetan aipatu argitasun eta bizitasunaren bila, kontutxoak ere eskaini ohi dizkio irakurleari, hala nola:

Un pulpo hambriento mira con interés a un cangrejo encerrado en un frasco. El pulpo intentará primero el plan A: agarrar la presa a través del vidrio. El plan falla. Y el genoma del pulpo no incluye otro plan tipo “cangrejo envasado”. Pero el pulpo (que no un calamar) se pone a buscar una alternativa. (74. or.)

Eta joko horretan ere jarraitzen zaio itzulpena:

*Gose den olagarroak interesez begiratzen dio flasko batean barruturiko karramarro bati. Olagarroak, lehenbizi, A plana saiatuko du: beiran zehar heltzea harrapakinari. Horra planak huts egin. Eta olagarroaren genomak ez dauka bere baitan beste planik “olagarroa potoan” tankerakorik. Olagarroa, ordea, (ez hala txipiroi bat), beste aukera baten bila hasten da.* (96. or.)

Kontutxoak kontutxo, itzultzailarei iratxoren bat edo pasa zaio hor firrindan eta karramarrua olagarro bihurtu. Igerilariak igeri jakinik ere, olagarroak beso anitz!

Baina itsasoan olagarroez gain, bada beste arrisku ohikoagoa ere: pentsatu gabeko lekuau–ur handitan ibilita ere– harriak topatzea; hartara, hona hemen –hau ere izkirimiri gisa– beste pasarte bateko hutsñoa, jotze okerrekoa edo inprimategikoa, itxuraz:

...clubes, conventos, sectas, pueblos, barrios, ciudades, culturas... (155. or.)

...klubak, konbentuak, sektak, harriak, auzoak, hiriak, kulturak... (210. or.)

## Hizkuntza sortu

Jatorrizko hizkuntzak, berez, hitz jokoetarako eman ditzakeen aukerez harago joaten da jatorrizko testuaren idazlea; hizkuntza behartzen du, sortzen du, hitzak asmatzen ditu, eta itzultzaila ere saiatzen da joko horri bidea ematen:

Batzuetan euskarazkoa gaztelaniazkoa bezain berri eta deigarri gertatzen da:

No hay nada como un epílogo para inacabar un libro. (155. or.)

*Ez da epilogo bat bezalakorik liburu bat amaitugabetzeo* (210. or.)

Baina maiz gertatzen da euskarazkoa ez dela gaztelaniazkoa bezain bitxi edo harrigarri geratzen. Gaztelaniaz estiloak finkatuago direnez, ohiko ildoetatik atera orduko nabarmenzen da jokoa; euskaraz, aldiz, bideak ez ditugu horren ibiliak eta hartara, gure ibilera ez da horren ildoratua; lehen seinalaturiko zenbait adibidetan euskararen finkatze maila eskasa zalantza sortzaile –edo nabarmen, behintzat- agertu bazaigu, orain, aldiz, estonagarri gertatu gabe balantza handiagoak egiteko aukera horrek ulergarritasuna areagotzen digu:

preconclusión / *aurreondorio*

incompletitud / *osagabetasuna*

...fue probablemente un gozador de la belleza... (291. or.)

*...edertasunaren gozatzaire bat izan zen...* (386. or.)

Son formas autosemejantes. (250. or.)

*Forma autoantzekoak dira.* (332. or.)

...no es raro observar fractales que iteran su autosimilitud hasta ocho y nueve veces. (250. or.)

...ez da harritzekoak ikustea fraktal batzuk beren autoantzekotasuna are zortzi eta bederatzi aldiz iteratzen dutenak. (332. or.)

Batzuetan, halere, itzultzaleak ez du jatorrizkoaren berrikuntza gordetzen:

Es decir, nuestro esquema conceptual nos sirve para repreguntar así: ... (253. or.)

*Alegia, gure eskema kontzeptualak honako galdera hau egiteko balio digu:* ... (336. or.)

Beste batzuetan, gaztelaniari berari begira eginak dira gogoetak eta itzultzaleak nondik norakoa azaldu behar du, betiere euskarazko baliokidea ematen saiatzearekin batera:

En general, la realidad es una trama de evoluciones posibles, una especie de nervura (adelanto una palabra nueva) en el terreno de las alternativas. (31. or.)

*Oro har, bilakaera posiblezko bilbe bat da errealtitatea, hautabideen eremuko halako (hitz berri bat aurrera dezadan) zain-egitura bat edo.* (34. or.)

*La nervura de lo real*

Tomo prestada la expresión del título *A nervura do real, imanéncia e libertade em Espinosa*, obra de la filósofa brasileña... De forma curiosa, en nuestro idioma, la palabra “nervura” existe sólo en el lenguaje de los libreros:

“**nervura**. f. Conjunto de las partes salientes que en el lomo de un libro...”

Tal como se encuadernan hoy los libros, no creo que esta bella palabra vaya a tener mucho uso en el futuro. Así que, con el debido respeto, propongo a la Real Academia Española una extensión de su significado:

“**nervura**. f. Estructura ramificada, real o abstracta, que recuerda la de los nervios en el sistema nervioso”. (57. or.)

*Erreal den horren zain-egitura*

*Maileguan hartzen dut esapidea Marilena Chaui brasildar filosofoaren eskutiko A nervura do real, imanéncia e libertade em Espinosa lanaren izenburutik... Gauza bitxia, gaztelaniaz, liburugileen hizkuntzan baino ez da erabiltzen “nervura” hitza:*

“**nervura**. f. Conjunto de las partes salientes que en el lomo de un libro...”

*[zain-egitura. Iz. Koadernatzeko baliatzen diren nerbio edo kordek liburu baten bizkarrean era-tzen dituzten kosken multzoa].*

*Gaur egun liburuak koadernatzzen diren moduan, ez dut uste erabilera zabala izango duenik hitz eder horrek etorkizunean. Hala, bada, dagokion begirunez, hitzaren esanahia hedatzea proposatzen diot Espainiako Errege Akademiari:*

“**nervura**. f. Estructura ramificada, real o abstracta, que recuerda la de los nervios en el sistema nervioso”.

*[zain-egitura. Iz. Adarkatzezko egitura, errealt nahiz abstraktua, nerbio-sisteman nerbioek dutena gogorarazten duena]. (71-72. or.)*

...¿Cómo llamar al simple hecho de captar una armonía o un ritmo?

La palabra no existe porque, en el lenguaje común, la belleza no se libra de una connotación positiva (que nosotros hemos evitado en la definición). Lo bello no se separa del gozo por lo bello. Por esa razón no nos sirve la palabra “embelesar”. Usando dos palabras, lo que buscamos es algo así como comprender la belleza, captar la estética. Lo primero equivale a adelantar una teoría. Lo segundo es sencillamente feo. Además, son dos palabras y buscamos una sola. Inventar una palabra siempre parece presuntuoso, pero la necesitamos. Probemos. “Bellar”, de bello, no funciona...

...una salida luminosa y triunfal...”.

Ya tenemos la palabra. Comprender es a la inteligibilidad lo que beldar es a la belleza. (277-278. or.)

*...Nola deitu, bada, harmonia edo erritmo bat hautemate soil-soilarri?*

*Ez da halako hitzik gaztelaniaz, zeren hizkuntza arruntean, edertasuna ez baitago libre konnotazio positibo batetik (guk saihestu egin dugu hori definizioan). Ez dugu bereizten eder dena eder denarengatiko gozamenetik. Horregatik ez digu balio “xarmatu” hitzak. Bi hitz erabilita, edertasuna konprentitu, estetika atzeman edo halako zerbaite genuke bila gabiltzana. Lehenak berekin dakar teoria bat aurreratzea. Bigarrena, berriz, nabarmen itsusia da. Gainera, bi hitz dira, eta bat bakarra nahi dugu. Hitz bat asmatzeak handiustea dirudi beti, baina haren premia dugu. Saia gaitezen.\**

*Badugu euskaraz hitz egokia horretarako, erantsirik daraman konnotazio positiboa alde batera uzten badugu: “ederretsi”. Badugu hitza. Konprentzearen eta ulergarritasunaren artean dagoen erlazio bera dago ederrestearen eta edertasunaren artean. (368-369. or.)*

\* Argitaratzaileen oharra: Jatorrizkoaren azalpenak ez du zentzurik gaztelaniarentzat baino, eta horregatik egokitutu dugu testua. Honela dio kendu dugun pasarteak: “Bellar” de bello, no funciona...una salida luminosa y triunfal...”.

## Itzulpen zuzentzailea

Jatorrizko testuan ere izan ohi dira akatsak, eta itzulpenak batzuetan zuzentzen ditu; honako bi kasuetan gertatu da, adibidez, horrela:

Para ello clasifiquemos la realidad en tres clases. La clase A ...La clase B ...La realidad tipo C ...Y, por último, la clase D ... (37. or.)

*Horretarako, sailka dezagun errealtitatea lau klasetan. A klasea, ...B klasea, ...C klasea, ...Eta D klasea, azkenik, ... (42. or.)*

A, B, C eta D lau dira, noski!

Las buenas metáforas (y los buenos esquemas conceptuales) pueden estirarse más allá de la vigencia para las que se imaginaron. (30. or.)

*Metafora onak (eta eskema kontzeptual onak) asmatu ziren xede eta esparrutik harago zabaldu daitezke. (33. or.)*

Gaztelaniazkoan agertzen den “vigencia” soil horren ordez euskaraz “xede eta esparru” agertzeak pentsarazten dit nik eskuartean darabildan bertsioa ez datorkeela bat itzultzailak erabili

duenarekin, “xede eta esparru” ez baitut ikusten nola atera daitekeen hori gaztelaniazko hor goiko zatitik, non ez den itzultzalea, idazleari liburu mardul horretan zehar, bide malkar eta xendra gordeetan aurrera horren gertutik jarraitu ondoren, hari aurrea hartzeko moduan izatera iritsi ere dela.

## Azken buruan

Azalduriko adibide ilara luze horren ondoren eta ondorioz, zerbait laburbiltzen saia nadin:

Esandako guztia esanda, uste dut aski argi ageri dela jatorrizko testuaren estiloaren ezaugarri nagusiak gorde dituela euskarazko testuak; itzultzaleak ezaugarri horiek hauteman dituela eta euskaraz ematen jakin duela. Baino liburua ez da zati zenbaiten edo ezaugarri zenbaiten ilara hutsa; horregatik bildu nahi ditut orain adibide andana horiek guztiak obraren osotasunera. Horretarako, itzulpenaren gaineko lehen hitzetan obraren antolaeraz esan dudanera itzuliko naiz orain eta gaineratu jatorrizko obrari ikusten zitzaiion asmo didaktikoari, zientziaren hedatze nahiari, itzulpenak bete-betean erantzun diola.

Jatorrizko obrari, idazleari, seguruenik aski –eta ez gutxi– zaie asmo hori bete izana, baina itzulpen lanari, itzultzaleari, beste balio bat erantsi behar zaie, edo hobeki esanda, itzultzaleari aitortu behar zaio eman dion balio erantsia, gaur egunean euskarak edota euskaldunok dugun egoeran premiazkoak baitzaizkigu euskararen baliabide estilistikoak garatuko dituzten irakurgaiak. Eta hori du, erkaturiko adibide sortaren gainetik, itzulpen honek balio nagusi eta seinalagarria. Euskarazko gaur egungo eta etorkizunerako idazte estiloak garatuz joateko proposamen sendoa dugu itzulpen lan hau, euskaraz idatzi nahi duen edonorentzat baliabide anitez josirik; gaur egun euskaraz idaztea (itzultzalearen modutxo bat kopiatuz diot) zertsu izan daitekeen oraindik osatzeke baitugu euskaldunok eta handik eta hemendik sorturiko proposamenak behar ditugulako bildu. Euskararen bide anitz jartzen digu eskura –edo oinetara-euskaratzetan horrek.

Itzultzaleoi egotzi ohi digute, beste gaitz askoren artean, hizkuntzen bortxatzaileak garela, kanpoko hizkuntzetatik itzuliz, haien moldeak ere ekartzen omen ditugulako xede hizkuntzara. Eta hori zeinahi hizkuntzatan gerta badaiteke, are arrisku handiagoa dugu gaztelaniatik euskarara itzultzean, geurean euskal hiztun oro etengabe ari baikara itzultzen eta euskara eta gaztelania –edota frantsesa– aldi berean erabiltzen, egoera diglosiko baten barnean murgildurik.

Horrek egiten du *Formen matxinada* itzulpen lanak dakarren gaztelaniazko hizkuntza moldeen euskal ordezkoen proposamen andana aberatsa, bai eta estilo sortze lan sendoa, bereziki aberasgarri itzulpen lanetarako, batez ere gaztelaniatik euskaratzen ari den itzultzalearentzat.

Eta hartara, artikulu honi –jatorrizkoarekin jolasean– jarri diodan azpititulura nator, hau da: nola itzuli ziurgabetasuna ez areagotzeo, edozein itzultzaileren zimikatzaile den kezka bai ta. Itzulgaiaren aitzinean ziurgabetasun horren beldur ikarak eramatzen gaitu, arrunt, gaztelaniazko ere hiztun –hala garenok– garen neurrian, gaztelaniaren baitan bilatzen ziurtasun

guztia eta hari lotuegi itzultzera; alabaina horrek, ordea, ez itzultzea dakar, alegia, ez ur eta ez ardo geratzea, erdibideko hizkeraño kamuts batean.

Hori gabe, itzulgaiaren aurrean ausarki, euskaratzeko abiapuntu eta ibilbide beti zahar baina, halaber, berriak proposatzen dizkigu liburu honen itzulpenak, itzulgaietan sarritan agertu ohi zaizkigun gaztelaniazko moldeak euskaratzeko baliabide edo ordain anitez horniturik.

Lehen esan dudan legez, itzulgairen bat eskuetara etortzen zaigunean erantzuna eman behar diogu; xede hizkuntzaren, hots, euskararen, egoera zeinahi delarik ere, ditugun baliabideekin moldatu behar dugu; itzultaileok ezin dugu zubi guztiak eraikiak izan arte itxaron, urezkoak bezala hizkuntzen arteko tarteak igarotzeko, beste hizkuntzetan esandakoa euskaratzeko; beharbada horrek egiten gaitu, ez bakarrik igerilari, baizik eta neurri handi baino handiagoan, zubigile ere: itzulpen lan bakoitzak bete behar izaten du euskaldunoi edo, bestela esanda, euskal erkidegoari –esan nahi baitut, euskaraz ari garentoi– falta zaigun zubi askoren hutsa, eta betelan hori, behin eginda, besteentzako proposamen bihurtu daiteke. Orain arte jorratzen aritu naizen itzulpen lan horretan proposamen andana azkar eta ederra dugu, ez bakarrik itzultaileontzat, baina bereziki guretzat.

Edonola ere, hizkuntza ez daiteke banaka sortu; taldezalea dugu hizkuntza eta adostasunak behar ditu, bat etortzeak. Horregatik behar dugu euskaldunok, zalantza-balantza horretatik aterako bagara, ziurgabetasuna areagotuko ez badugu edo ziurtasun bila beste hizkuntzetara joan beharrean kokatuko ez bagara, proposamenak egin eta hartu, eta bateratu, erkide aritu, inoiz mundua ulertu eta izendatzeko balia genezakeen hizkuntza sendo eta ziurra osatu arte.

Hala ulertzen dut kritika lanen egiteko: banakoek egiten dituzten proposamenak taldera ekarri, hizpidera, hortatik denontzat balio dezakeen zerbait ateratzeko asmoz. Eta horretan saiatu naiz honainoko lan honetan. Lortu dudan ala ez, zuei uzten dizuet hitza. Eta amaitzera heldurik, hona elkarlanaren eta elkar aditu beharraz egin dudan azken gogoeta horren argigarri gerta dakizkigukeen liburuaren pasarte eder baten honako hitzño hauek:

“Banakoentzako batura soilak ez du ematen banako berrirrik...”

Edonola ere, horra banako baten ekarpen eder eta azkarra!

Eta on degizuela!

2010eko uztailaren 22a  
bakaka49@hotmail.com

### *La rebelión de las formas: o cómo traducir sin que aumente la incertidumbre*

Se acusa a menudo a los traductores de forzar el estilo de la lengua de llegada. El riesgo de que el sistema de la lengua de origen se imponga al de la lengua de llegada es aún mayor en el caso de las traducciones del castellano o del francés al euskera, ya que las hacen traductores bilingües que viven en un entorno diglótico, favorable a las dos lenguas más fuertes, en un momento en que el euskera no cuenta con una estructura estilística clara y fuertemente arraigada en la comunidad de hablantes.

Por miedo a la imprecisión, a menudo caemos en la tentación de refugiarnos en la seguridad de la lengua de origen, sin despegarnos lo suficiente de ella, por lo que el texto traducido acaba pareciéndose a un vino aguado, sin gusto ni fuerza.

La traducción al euskera de la obra *Rebelión de las formas* refleja una actitud atrevida, basada en una estilística muy elaborada. Se trata de una propuesta rica en recursos estilísticos, interesante para quien quiera avanzar en la difícil tarea de respetar el texto original sin por ello faltar al respeto al sistema estilístico de la lengua de llegada.

### *La rébellion des formes ou comment traduire de manière à ne pas accentuer l'incertitude*

Les traductions ont la réputation de violer le style de la langue cible. Le risque que ce phénomène d'imposition du système de la langue d'origine intervienne est encore plus grand aujourd'hui dans le cas des traductions de l'espagnol ou du français vers la langue basque, car elles sont le plus souvent effectuées par des traducteurs bilingues dans un environnement diglossique, favorable aux deux langues majoritaires, à un moment où la langue basque ne s'appuie pas sur une structure stylistique claire et fortement enracinée dans une communauté de locuteurs.

Par crainte de l'imprécision, nous sommes souvent tentés de nous réfugier dans la sécurité de la langue d'origine, de ne pas nous en libérer totalement, ce qui conduit à une traduction qui n'en est pas une, qui finit par ressembler à un vin teinté d'eau, à un langage sans saveur.

Dans la traduction en langue basque de l'oeuvre *Rebelión de las formas* (*Rébellion des formes*), on peut apprécier une attitude audacieuse, fondée sur une stylistique de la langue basque très élaborée. Il s'agit d'une proposition riche en ressources stylistiques, intéressante pour qui souhaite progresser sur la voie du respect du texte original sans pour autant manquer de respect au système stylistique de la langue cible.

### *The revolt of forms or how to translate without increasing insecurity*

One of the many evils we translators stand accused of is that we force languages, because when translating from foreign languages we also transfer their moulds into the target language. And if that can occur in any language, the risk is even greater when translating from Spanish into Basque, because we Basque speakers on our home soil are translating all the time and simultaneously using both Basque and Spanish –or French–, as we are immersed in a diglossic situation.

The translation work *Formen matxinada (Revolt of Forms)* provides a rich array of Basque language moulds alternatives for the Spanish language; it is a consolidated piece of work for creating style, and can be very enriching for translation works and in particular for those translators who translate from Spanish into Basque.

And that brings us to the subtitle I have added to this article –while playing around with translated text–, in other words: how to translate without intensifying insecurity, because it gives rise to uneasiness in any translator. The terrible fear of that insecurity when faced with the text to be translated leads us totally, insofar as we are Spanish speakers –those of us who are–, to seek all the security within Spanish and to translate in a way that is too closely connected with it; nevertheless that leads to not translating, i.e. to producing an inter-language which ends up as neither one thing nor the other.

Without that, the translation of this book is suggesting with respect to the text to be translated that we should adopt a different, daring attitude instead of the usual starting point and way of translating into Basque; it is brimming with lots of resources and equivalent forms for translating into Basque Spanish moulds that frequently appear in texts to be translated.

